

Donostia, 2017ko apirilaren 12a

## IDAZKARITZA NAGUSIARI

### MIRAMAR JAUREGIARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du. Miramar jauregiari buruz hil honetako Batzordean bideratutako interpelazioaren ondorio da mozioa.

## JUSTIFIKAZIOA

Batzordean azaldu bezala, Joan den martxoaren 20an, komunikabide batek argitaratu zuen Miramar jauregia kudeatzen duen Partzuergoak (Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzak) txosten bat eskatu duela Miramar jauregiari eman diezazkiokeen erabilerak aztertzeko, Musikene bere behin betiko egoitzara lekualdatu baita.

Horrelako txostenik zegoenik ukatu zuen alkateak batzordean, eta antolatu nahi dituzten erabilerei buruz galdetuta, adierazi zuenez, bateragarri ikusten zuen ostalaritzako erabilera eta kongresu jarduerak, gainera, nabarmendu zuenez, ez zitzaion oso egoitza egokia bulegoak ezartzeko. Hori dagokionez, zehaztu zuenaren arabera, Alderdi Popularrak Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuei eginiko zuzenketak ez du zehazten Basquetour jauregian bertan egoterik, Donostian bertan baizik.

Kezkatu egiten gaitu jauregia ostalaritzarako erabiltzeak ekar dezakeen espazio publikoaren pribatizazioak, erabilera horrek jauregi osoa hartzen ez badu ere.

Miramar jauregiaren etorkizunaz beste auzi batek ere kezka sortzen digu: partzuergoaren kudeaketa “profesionalizatu” edo pribatizatu ahal izateak, eta kontu hori interpelazioaren zuribidean jasota egon arren, ez zuten argitu batzordean.

Gogora ekarri nahi dugu ezen Donostiako Udala, Miramar jauregia kudeatzen duen partzuergoko kide izateaz gainera, jauregiaren jabea dela. Halere, orain arte, talde politikoez ez dugu jaso inolako informazio argirik jauregiari eman nahi dizkieten erabilerez.

Gure ustez, horri buruz ezer erabaki aurretik, garrantzizkoa da talde politikoez informazio hori eskuratu ahal izatea, denok ez gaudelako partzuergoan ordezkatura eta, hortaz, ezin dugulako informazioa zuzen-zuzenean izan.

Irabazi Donostia taldearen aburuz, oso kezagarria da ordezkari politiko batzuek defendatzea Miramar jauregiaren moduko eraikin bat hotel bihurtu ahal izatea —oso txikia bada ere—, hori ezin baita izan Donostiaren ikurretako bat den eraikin baten helburua.

Hori dela eta, honako interpelazio hau aurkezten dugu:

#### KONTROL MOZIOA

1. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari udal taldeak Miramar jauregiari eman nahi dizkieten erabileren jakitun jartzeko, horretaz ezer erabaki aurretik.
2. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari alde batera uzteko Miramar jauregia etengabe ostalaritzako jarduerekin okupatzearena.
3. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari alde batera uzteko Miramar jauregiaren kudeaketa kanpora atera ahal izatearena.



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

**irabazi**  
DONOSTIA

Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

---

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián  
irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

Sinatua:

Amaia Martin Garin,

Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.